



1- Entzun aurretik

1.1 Merkeago nola erosi



Denok saiatzen gara gure erosketetan ahalik eta gehien aurretzen. Baina, nola lortu dezakegu gutxiago gastatzea? Zein da zure metodoa? Idatzi bururatzen zaizkizun ideiak. Ikaskideekin partekatzeko aukera izango duzu ikasgelan egingo duzuen ariketa batean.



Eguneroko erosketak nola egin

- *Erosi behar duzun gauzen zerrenda bat egin.*
- *Balioetsi benetan beharrezkoak diren gauzak eta gutizia gisa soilik erosten dituzun gauzak.*
- *Egin asteko menua eta etxean ordezkatu behar dituzun eta elikagaiak ez diren produktuen zerrenda.*
- *Berrikusi hozkailua eta armairuak zein produktu falta den eta zein ez jakiteko.*
- *Eta azkenik, saia zaitetz supermerkatuko promozioek eginga daukazun zerrenda asko alda ez dezaten*



Merkealdi garaian nola erosi

-
-
-
-
-
-
-

1.2 Topikoak

Merkealdia izango da hizpide Jon eta Joneen arteko elkarrizketan. Entzun baino lehen, irakurri erosketei buruzko topikoak eta adierazi emakumeari ala gizonari lotuta esan ohi diren. Galdetu zure ikaskideari ea gauza bera erantzun duen.



- | | | |
|---|--------------------------|--------------------------|
| Dendaz denda ibiltzea gustatzen zaie | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ez dute gogoko gauza asko probatzea | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Zerbaiten beharra daukatenean bakarrik joaten dira eroatera | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Aurretik ikusi eta gero eroatera joaten dira | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Aspergarria iruditzen zaie erosketak egitea | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ezertarako balio ez duten gauzak erosten dituzte askotan | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Tendentzia eta beherapena da gehien begiratzen dutena | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Nahiago dute kalitatea eta marka erosi | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

Ados al zaudete topiko horiekin? Gaur egungo egoera islatzen dutela iruditzen zaizue ala zaharkituta daudela pentsatzen duzue? Zergatik?

.....

.....

.....

.....



2- Entzun bitartean

2.1 Jon eta Jone merkealdian

Jon eta Jone merkealdira joan dira. Entzun bien arteko elkarrizketa eta alderatu 1.2 ariketako topikoekin. Zein baieztapen egokituko zenioke bietako bakoitzari? Idatzi behean eta ondoren, alderatu erantzuna zure ikaskidearekin.

Jon

Jone

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2.2 Merkealdira joatearen arrazoia

Entzun duzuna kontuan hartuta, zein iruditzen zaizu dela Joneren arrazoia beherapenetara joateko? Aukeratu erantzun egokia eta alderatu zure ikaskidearekin

Zein da Joneren benetako arrazoia merkealdira joateko?

- Jon barregarri ikustea
- Dirua xahutzea
- Erosketak egitera ateratzea
- Behar dituen gauzak erostea

2.3 Joneren estrategiak

Jonek, merkealdiei etekina ateratzeko zenbait estrategia erabiltzen dituela esan dio Joni. Entzun berriro elkarrizketa eta saiatu horiek atzematen. Komentatu zure ikaskidearekin eta bion artean osatu informazioa.

1. Merkealdi hasieran:

2. Beherapenek aurrera egin ahala:

3. Beherapena duten gauzekin batera:

Zer iruditu zaizue Joneren jokaera? Eta zuek, baduzue estrategiarik beherapenatarako? Nahi baduzue, partekatu ariketan idatzi dituzuen merkealdi garaian aurrezteko ideiak.

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Erosketetan aurrezteko gomendioak

Irudietako gauzak erosteko aholkuak emango dizkiozue elkarri.

1. Aukeratu zer erosi nahi duzun eta zure ikaskideari esan. Berak zuri esango dizu zer aukeratu duen. Eskatu eta eman behar beste xehetasun erosi nahi duzuenari buruz.
2. Prestatu estrategiak zure ikaskideak erosi nahi duena prezio onean lortu dezan. Erabili, nahi baduzu, ariketan bilduta dituzun ideiak. Berak ere gauza bera egingo du.
3. Eman elkarri aholku horien berri.



Adibide hauek lagungarriak izan daitezke zure aholkuak emateko garaian:

- Erabakia hartu aurretik, ikusi beharra daukazu nolako prezioak dauden merkatuan...
- Denborak aurrera egiten duen heinean, prezioak jaisteko beharra izaten du jabeak, orduan...
- Modelo berriena erosteko aukera hartzen baduzu, kontuan izan behar duzu prezioa asko garestituko dela, horregatik...
- Nik zure lekuan aukera guztiak aztertuko nituzke erabakia hartu baino lehen
- Komeni zaizu merkatua aztertzea, ondoren erabaki egokiena har dezazun
- Beherapen hasieran erosi ordez, zergatik ez duzu itxaroten bigarren merkealdia jarri arte?
- Orena litzateke...
- Saia zaitez prezio eta ezaugarrien zerrenda oso bat egiten, produktuen arteko aldeak ahalik eta egokien baloratu ahal izateko.
- Hobe duzu...